



Maria Txibite lehendakaria, proiektuan parte hartuko dute Hego Koreako enpresen ordezkariekin. BERRIA

Autoen bateriak birziklatzeko Caparrosoko planta 2026an egongo da martxan

- Gisa horretako lantegi bakarra izango da Euskal Herrian.
- Nafarroako Gobernuak, lurraldeko enpresek eta Hego Koreakoek parte hartuko dute egitasmoan.

Jokin Sagarzazu

Nafarroak auto elektrikoaren bateriak birziklatzeko planta bat izango du: Euskal Herriko lehena eta, oraingoz, aurreikusita dagoen bakarra. Caparrosoko egongo da, 2026tik aurrera hasiko da lanean, eta 70 lanpostu inguru sortuko ditu. Hala berretsi zuen atzo Maria Txibite Nafarroako Gobernuko presidentea, egitasmoaren parte diren enprekin batera eginiko bilera.

Caparrosoko industrialdean 31.000 metro koadroko lursail bat erabiliko dute horretarako, eta 18,5 milioi euro jarriko dituzte. Proiektuan parte hartuko dute Sodena sozietate publikoak eta

Nafarroako BeePlanet Factory enpresak. Egitasmoa sustatzen duen partzuergoan edo akziodunen taldean daude, halaber, Hego Koreako bi enpresa: SungEel Hi-Tech eta Samsung C&T. Haiek, batez ere, plantak beharrezkoa duen teknologia jarriko dute. Era berean, Nafarroako beste bi konpainiak parte hartuko dute: Metales de Navarrak (Medenasa) eta TW Group logistika taldeak. Sodenak 1,6 milioiko kapitala jarriko du.

Horiei guztiei harrera egin zien atzo Txibitek Nafarroako foru jauregian. Hego Koreako ordezkari bat izan zen han, eta haien eta Nafarroako enpresen arteko lankidetzaren nabarmendu zuen lehendakariak. «Horri esker, punta-puntako teknologia eta tokiko garapena batzea lortuko dugu».

Hego Koreako SungEel HiTech enpresako zuzendari nagusi Yi Kang-myung «oso harro» agertu zen «Nafarroako ekosistema industrialaren parte izateagatik». «Bazkiderik onenak ditugu, eta ziur gaude proiektu honek arrakasta izango duela». Yik gogoratu zuen SungEelek beste bi lantegi dituela Europar, Hungarier eta Poloniar, eta estrategikotzat jo zuen Euskal Herrikoa. Horrez gain, Hego Koreako taldeak laster beste bat irekiko du AEBetan.

Gainera, Txinan, Malaysian eta Indian ere antzeko instalazioak ditu.

25.000 auto urtean

Egitasmoaren bultzatzaileek azaldu dutenez, Caparrosoko plantak litiozko ioi bateriak (Li-ion) birziklatzeko lehen planta izango da Iberiar penintsulan. Urtean 25.000 bat autoen bateriak tratatzeko gaitasuna izango du, eta hortik 10.000 tona *masa beltz* sortuko ditu.

Masa beltz hori bateriak birrindu eta karkasa guztiak kendu ondoren lortzen den produktua da, eta litioa, nikela, kobaltua, manganesoa, kobrea eta grafitoa ditu. Material horiek urriak dira, baina beharrezkoak bateriak berri-ekoizteko.

Nafarroako Gobernuak foru intereseko inbertsioztat jo du Caparrosoko planta eta bat dator mugikortasun elektrikoarekin loturiko beste egitasmo batzuekin; bereziki, Volkswageneren auto elektrikoetarako bateriak muntatzeko asmoz Imarkoaren egingo duten lantegiarekin (Elortzibar, Nafarroa). Horrez gain, eta ekonomia zirkularrekin loturik, sektore eolikoko hiru proiektu abian dira Nafarroan. Erroten osagaiak berrerrabiltzea eta palak birziklatzeko dute helburu. ●